



Poesia bizitzeko eta sentitzeko modua da

Karmele Igartua

Pamiela Poesia, 56

978-84-9172-314-1

2022. urtea - 280 or. - 15x21 cm

16,00 €

Airea naiz ni
 hemen eta inongoa
denean bizi bainaiz inon ez bezala
eta guztiak ukitzen nau, halabeharrez,
eta uretan atsedean hartzen dut
ur-azaletan, bare,
aintziran
errekan
edo itsasoan,
han umiltzen da nire egonezina
igual, ez nauelako barruetan hartzen urak,
ito ez nadin
ito ez dezadan.

Baina, ene!

-ikusezin-
-etereo-
-bete-
-libre-

izanik ere
airea besterik ez naiz,
eta

bakarrik, *bakarrik leku barik.*
ezer ere ez.



Karmele Igartua Bengoa
Aretxabaletarra (1959-2010)

Bertako Kurtzebarri Eskolan irakaslea izan zen eta testugintzan ere aritua. Bergarako Idazle Eskolako gradu-ondokoa bukatu ostean, bertako koordinatzaile eta sustatzaile izan zen.

Hitzak orbainetan poema liburua, 2007ko Felipe Arrese Beitia Saria irabazi ondoren argitaratu zuen (Euskaltzaindia- BBK Fundazioa, Bilbo, 2008). Ordurako irabazia zuen Bergarako Idazle Eskolako sorkuntza beka, eta taularatuak hainbat antzeslan. Liburu hartarako idatzi zuen: «Zer eta nola galderen erantzunak ditut bizi ardatz, horregatik, zeresana izan edo esateko moduan asmatzea dira idaztearen oinarri eta idazlearen erronka».

2009an eman zuen argitara *Denbora enaren hegaletan* (Pamiela). Ordurako itzuliak zituen *Wilnoko gutunak* eta argitaratuak Marina Tsvietaievaren biografiarekin *Egan* aldizkarian (LXII. alean). Denboraz, sormenaz eta sorminaz idatzitako liburuan, enara beltzen hegaldi gera ezinez aritu zen.

2011n argitaratu zen berak hil ala biziko aldiaren idatzitako *Itsaso kontra bat* (Pamiela). Liburu hau Espainako Poesia Sari Nazionalerako hautagai izan zen. Karmele Igartua Bengoa poeta garaikidea izango da bere garai-garaikoa izan zelako, eta berak hainbeste estimatzen zuen Marina Tsvietaievaren hitzetan «Garaikide izatea norberaren denbora sortzea baita».

